



LIBURUA

Hemen da paradisua



LEUOPA
PABLO SASTRE

SUSA, 2002

ARITZ GALARRAGA

Europa da kontinente bat, ados, kontzeptu geografiko bat, kultural bat, politiko bat. Baina da batez ere amets bat, utopia bat, paradisu moduko zerbait munduko beste hainbat bazterretatik hona lekualdatu nahi duen migrariarentzat.

Tximi ez da zehazki migrari, ama Andoaingoa, aita Marokokoa, hamabi urte arte Frantzia bizitu zen, Donibanen eta Baionan. Eta hala ere “moro bat, pentsatuko zuten, zergatik horren gainian giro petrala zegoen”. Ezagun duelako saiatzen da Europara joan nahi dutenak ohartarazten, ez dela hainbestetako, gutxi duela agindutako lurraldetik. Negozio batean sartuko da Sakirekin, ordea, jendea ekarri behar dute han behetik: “Hi, nahi al duk kamionian nerekin etorri?”.

Hain zuzen, kamioi bidaia bat da liburuak harrapatzen duena, atari-ondorengoekin, baina Euskal Herritik Marokora egindako joanaldia, gero buelta giza generoz kargatuta egiteko asmoarekin. Bidaia horretako peripeziak eza gutuko ditugu, beraz, jakingarriak, ez batere aspergarriak, Tximiren ahotik kontatuak denak, ahots oso pertsonal batez, zeinak eusten dion irakurketari narrazioak irauten duen denbora guztian. Eta dena oso modu, hitzaren zentzu onean, noski, pelikuleroan. Irakurlearen aurretiko esperientzia zenbateraino den garrantzitsu, behin eta berriro etorri zait burura orain ez asko ikusitako *Oreina* filma, Koldo Almandozena, zehatzago Khalil pertsonaia, Sastreren eleberriko protagonistaren anaia biki filmikoa. “Hi berriz, pelikula

bat egiteko ere bahaiz”, esango dio uneren batean Sakik Tximiri. Almandozek izango balu sorkuntza lehorteren bat, *Leuropa* egokitzea ez litzateke aukerarik makurrena.

2002an argitaratua, migrazio berri deitu honen aferan apenas gurean agertzen hasi zenean, hainbeste urte beranduago oraindik ere sekulakoa da gordezten duen gaurkotasuna, gaiak bezala nobelak. Eta gauzak gehiegi aurreratu nahi gabe, baina tesi ezin kitzikagarriago bat uzten digu azkenerako, Sussu pertsonaia erdi ero erdi bisionario baten ahotik: lurra ez dela horren erraz uzten, akaso zerutik joan nahi dutela auskalo nora. “Hemen duk paradisua!”. Irakurri nuen nonbait ziur aski Sastreren lanik onena zela. Hala ez bada, seguru ez dabilela sobera urruti. ●